



ARGIBIDEAK ATZEALDEAN

ONURADUNEN ALTA, ALDAKETAK ETA BAJA	
AFILIAZIO-ZENBAKIA <input type="text"/>	AURKEZPENAREN ERREGISTROA
MUFACE-KO ALTAREN DATA	
MUFACE-KO BAJAREN DATA	MUFACE-KO SARRERA ERREGISTROA

E S K A B I D E A

1. ESKATZEN DUENAREN TITULARRAREN DATU PERTSONALAK

Lehen deitura	Bigarren deitura	Izena
N.A.N./A.I.Z	Jaioteguna	Sexua <input type="checkbox"/> G Gizonezkoa <input type="checkbox"/> E Emakumezkoa
Helbidea	Zenbakia, pisua eta izkia	Udalerrria
Probintzia	Estatua	Posta-kodea
	Telefono-zenbakiak	Posta elektronikoaren helbidea

2. JAKINARAZPENARI DAGOZKION DATUAK

<input type="checkbox"/> 1 Ohizko helbidea	Helbidea	Zenbakia, pisua eta izkia
<input type="checkbox"/> 2 Bestelakoa (adierazi):		
Udalerrria	Posta-kodea	Probintzia
		Estatua

3. ESKABIDEAREN DATUAK (Dagokion atala bete)

3.1. ONURADUREN ALTA

1	Mutualistarekin duen lotura	Jaioteguna	Deiturak	Izena	N.A.N./A.I.Z
	Aipatutako mutualista ez den ama edo aitaren datuak : <i>Lerro hau bete seme-alaben alta eskatzen duzunean</i>		Deiturak	Izena	N.A.N./A.I.Z / Pasaportea
2	Mutualistarekin duen lotura	Jaioteguna	Deiturak	Izena	N.A.N./A.I.Z
	Aipatutako mutualista ez den ama edo aitaren datuak : <i>Lerro hau bete seme-alaben alta eskatzen duzunean</i>		Deiturak	Izena	N.A.N./A.I.Z / Pasaportea
3	Mutualistarekin duen lotura	Jaioteguna	Deiturak	Izena	N.A.N./A.I.Z
	Aipatutako mutualista ez den ama edo aitaren datuak : <i>Lerro hau bete seme-alaben alta eskatzen duzunean</i>		Deiturak	Izena	N.A.N./A.I.Z / Pasaportea
4	Mutualistarekin duen lotura	Jaioteguna	Deiturak	Izena	N.A.N./A.I.Z
	Aipatutako mutualista ez den ama edo aitaren datuak : <i>Lerro hau bete seme-alaben alta eskatzen duzunean</i>		Deiturak	Izena	N.A.N./A.I.Z / Pasaportea

3.2. DATUEN ALDAKETA (baliogarria, bai onuradunentzat bai mutualistak ez diren titularrentzat)

Hurrenkera-zk.	Deiturak	Izena	Mutualistarekin duen lotura	Jaioteguna	N.A.N./A.I.Z
<input type="text"/>					
<input type="text"/>					
<input type="text"/>					

3.3. ONURADUNEN BAJA

Hurrenkera-zk.	Deiturak	Izena	Mutualistarekin duen lotura
<input type="text"/>			
<input type="text"/>			
<input type="text"/>			

3.4. AFILIAZIOA, MUTUALISTA EZ DEN TITULARRA IZANIK (Afiliazioaren pareko dokumentua daukan onuraduna)

Eskubidearen arrazoiak:	Aukeratutako Osasun- Entitatea
<input type="checkbox"/> VI Alarguntasuna <input type="checkbox"/> DI Dibortzioa, ezkontzaren deuseztasuna edo egitazteko epailearen banantzea	
<input type="checkbox"/> OR Umezurtza <input type="checkbox"/> CO Mutualistaren seme-alaba, mutualista ez den ezkontidea edo ezkontide ohiarekin elkarbizitzea	
Mutualistaren izen-deiturak, zeinengandik eskubidea dator	Hala balegokio, MUFACE-ko mutualistaren afiliazio-zenbakia

AB-2 (22/02/2019)

INPRIMAKIA SINATU BEHAR DUZU →

<p>1. ADIERAZPENA ONURADUNEN ALTA</p>	<p>2. ADIERAZPENA TITULAR EZ-MUTUALISTAREN ALTA (Afiliazioaren pareko dokumentua daukan onuraduna).</p>
<p>Hemen jarritako datuen jabe diren pertsonak Mutualismo Administratiboaren Araubidearen onuradun gisa sartze aldera, adierazten dut, neure erantzukizunaren pean, pertsona horiek guztiak:</p> <p>a) Nirekin eta nire pentzura bizi direla.</p> <p>b) Ez dutela inolako lanbide edo lan ordainduririk, ez ondare-errentarik, ez pentsiorik, ondorio anitzetarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) halako bi baino handiagoa denik.</p> <p>c) Ez direla titular edo onuradun gisa ageri osasun laguntza jasotzeko eskubidea frogatzen duen beste inongo dokumentutan, ez MUFACEk kudeatzen duen araubidean ez Gizarte Segurantzaren Sistemako beste ezein araubidetan, eta ez daudela atxikita lanbide-elkargoen gizarte aurreikuspeneko mutualitate bati.</p> <p>Halaber, badakit adierazpen hori aldarazten duen edozein inguruabar jakinarazi beharko dudala.</p>	<p>Honako hau adierazten dut neure erantzukizunaren pean, onuraduna naizela onar dadin, afiliazioaren pareko dokumentuarekin, Mutualismo Administratiboaren Araubidean:</p> <p>a) Ez naizela titular edo onuradun gisa ageri osasun laguntza jasotzeko eskubidea frogatzen duen beste inongo dokumentutan, ez MUFACEk kudeatzen duen araubidean ez Gizarte Segurantzaren Sistemako beste ezein araubidetan, eta ez nagoela atxikita lanbide-elkargoen gizarte aurreikuspeneko mutualitate bati.</p> <p>b) Ez nagoela ezkontuta, eta ez naizela inorekin bizi ezkontzaren pareko maitasun-lotura izanda eta dagokion inskripzioa eginda.</p> <p>Halaber, badakit adierazpen hori aldarazten duen edozein inguruabar jakinarazi beharko dudala.</p>
<p>ALEGATUTAKO GERTAERAK / ESKABIDE HONI ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • • • • • 	
<p>Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, jakinarazten da ezen, eskabide hau MUFACEren edozein erregistrotan jasoz gero, afiliazioari buruzko administrazio-espedientearen hasiko dela. Espediente hori hilabeteko epean ebatzi beharko da, berriazko ebazpena emanez edo afiliazioa ageria emanez. Epe horretan berriazko ebazpenik eman ezean, Administrazioaren isiltasun horrek bai espere-ondorioak izango ditu. Zure eskabideak abian jarri duen prozedurari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, bizi zaren probintziako edo, aktibo bazaude, destinoa daukazun probintziako Mufaceren Probintzia Zerbitzura jo ahal izango duzu.</p>	
<p>Baimena ematen dut MUFACEk nire onuradunen nortasun- eta egoitza-datuak elektronikoki biltzeko Datu-bitartekaritzarako Plataformaren bidez. Bai <input type="checkbox"/></p> <p>Bestela, frogagiriak aurkeztu beharko dira.</p>	<p>TOKIA ETA DATA:</p> <p>ESKATZAILEAREN IZENPEA, edo bere ordezkariarena, behar bezala egiaztatua (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5 art.)</p> <p>(Ordezkararen izen-abizenak eta NANA)</p>
<p>Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduko (EB) 13. artikulua (Datu Pertsonalak Babesteko Erregelamendu Orokorra) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa 11. artikulua ezarritakoa betez, jakinarazi behar da inprimaki honetan ematen diren datu pertsonalak MUFACEk erabili dituela zuen onuradunen altak eta bajak izapidetzeko eta haien datuak aldatzeko, Administrazio Mutualismoaren Araubidean.</p> <p>Ezinbestean erabili behar ditu datuak, Estatuko Funtzionario Zibilen Gizarte Segurantzari buruzko Legean (testu bategineko 4, 7, 8 eta 9 artikuluetan) ezarritako lege-betebeharra betetzeko (ekainaren 23ko 4/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen). Datu pertsonalak honako hauei lagako zaizkie: zergei lotutako AEATri, Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileei, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioari eta osasun laguntza ematen duten entitate emaleei. Datuak ikusteko, zuzentzeko edo kentzeko eskubidea erabil daiteke, baita datuen babesari lotutako gainerako eskubideak ere; horretarako, datuen erabileraren arduradunarengana jo behar da: Mutualitatearen Idazkaritza Nagusira.</p> <p>Inprimakia eskuratu baino lehen datu pertsonalei buruzko informazio osagarri hau irakurri behar duzu: http://www.muface.es/protecciondedatos</p> <p>Mutualitateko Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jarri nahi izanez gero, erabili hurrengo helbide elektronikoa: DPDMuface@muface.es</p>	<p>TOKIA ETA DATA:</p> <p>Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Legearen 95.1.k) artikuluari jarraituz, MUFACEri nire baimena ematen diot Zerga Administrazioari Estatu Agentziari, bide elektronikoen bidez, errenta mailarenari buruzko informazioa eskatzeko, onuraduna naizela onar dadin.</p> <p>ONURADUNAREN IZENPEA, edo bere ordezkariarena</p> <p>(Ordezkararen izen-abizenak eta NANA)</p>
<p>ESTATUKO FUNTZIONARIO ZIBILEN MUTUALITATE OROKORRA</p>	

A R G I B I D E A K

ILUNDUTAKO guneak ez bete, MUFACE-KO AFILIAZIO-ZENBAKIA IZAN EZIK, zeuk edukiz gero.

• MUTUALISTAREN DATU PERTSONALAK

- Beti bete behar dituzu eta interpretazio-errakuntzak ez egiteko, argi eta garbi idatzi.

• ONURADUREN ALTA

- MUTUALISTAK ZILEGI DU onuradunen dokumentuan sartzea bere ezkontidea eta seme-alabak, bai eta Mutualismo Administratiboaren Erregelamendu Orokorren 15.1 artikuluan aipatzen diren senideak edo parekatuak ere. (beharrezkoa izatekotan, azken kasu honi buruzko argibideak eskatzeko MUFACE-ra jo zaitezke).
- Bi mutualisten edo gehiagoren seme-alabak, senideak edo asimilatuak izatekotan, Onuradunen Agiri BAKAR BATEAN sartzeko AUKERATU behar duzu.
- Eskabidean dagoen 1. Aitorpenaren a), b) eta c) ataletan zehaztutakoa, DERRIGORREZKO BETEKIZUNAK dira onuradunak sartzeko.
- Honako AGIRI hauek ERANTSI:
 - a) Mutualistaren eta eskatutako jarduketaren xede den onuradunaren **NAN** indardunak. Baldin eta **onuradunak Espainiako nazionalitaterik ez badu**, haren AIZ, eta horrekin batera honako hauek:
 - 1º **Atzeritarren Erregistro Zentraleko inskripzioaren ziurtagiria**, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarra badira, edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan parte hartzen duten beste estatu batzuetakoak edo Suitzakoak.
 - 2º **Europar Batasuneko herritar baten senidearen egoitza-txartela**, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren senideak badira, edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan parte hartzen duten beste estatu batzuetako edo Suitzako herritarrenak.
 - 3º Espainiako nazionalitaterik ez duten gainerako pertsonentzat (aurreko epigrafeetan ageri ez direnak), **atzeritarren nortasun txartela**, Espainian bizitzeko baimen baten titulartasuna frogatzen duena, edo, txartel horren beharrik ez badute, **Espainian bizitzeko baimena**, non ageriko baita atzeritarren nortasun zenbakia.
 - 4º Aurreko kasuetariko batean ere ez daudenentzat, **pasaporte indarduna**.
 - b) **Errolda agiria**, titularra bizi den udalerriko agintari eskudunak emana.
 - c) **Espainiako nazionalitaterik ez duten eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kargapeko zergadunak ez diren** pertsonen kasuan, azken egoitza izan duten **Estatuko Zerga Administrazioak emandako ziurtagiria**, frogatze aldera ez dituztela gainditzen Mutualismo Administratiboaren Erregelamendu Orokorren 15.2.b) artikuluan ezarritako gehieneko diru-sarrerak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren pareko zerga baten zioz.
 - d) **Onuradunaren jatorrizko herrialdean gizarte segurantzaren edo osasun laguntzaren gaineko eskumena daukan erakundeak emandako ziurtagiria**, non adieraziko baita ez dela bidezkoa Espainian osasun laguntza jasotzeko eskubidea esportatzea.

Aurreko a) eta b) parrafoetan aipatutako dokumentuak aurkeztu beharko dira soilik baldin eta MUFACEk bide elektronikoen bidez, Datuen Bitartekotza-Plataforma erabiliz, aipatutako informazioa lortu alhal dezanarekin desadostasuna adierazi bada.

Aurreko paragrafoetan aipatutako agiriez gainera, honako hauek erantsiko zaizkio, kasuan kasukoak, pertsona onuradunaren izaera aitortzeko eskabideari:

1. **Ezkontidea**: Familia liburua edo ezkontzaren inskripzioaren ziurtagiria, mutualistaren ezkontidea dela frogatzeko.
2. **Izatezko bikotea**: Erregistro publikoetarikoa batean egindako inskripzioaren ziurtagiria, edo, horrelakorik ezean, izatezko bikotea dagoela frogatzeko agiri publiko egokia.
3. **Ezkontide ohia**: Mutualistaren ezkontide ohia edo harengandik judizialki banandutakoa dela frogatzen duen agiria, eta, halaber, mutualistak konpentsaziozko pentsioa eman behar diola frogatzen duen agiria.
4. **Aurrekoak, ondorengoak eta neba-arrebak**: Familia liburua edo jaiotza-ziurtagiria, izaera hau frogatzeko:
 - Mutualistaren aurrekoak, haren ezkontidearenak, edo haren pentzutan dagoen ezkontide ohiarenak.
 - Mutualistaren ondorengoak, haren ezkontidearenak edo haren ezkontide ohiarenak, bai eta izatezko bikotekidearen seme-alabak ere.
 - Mutualistaren neba-arrebak.
5. **Tutoretzapekoak eta harrerapekoak**: Agintaritzaren eskudunak erabakitako tutoretza edo harrera frogatzen duen agiria, mutualistak, haren ezkontideak, haren pentzutan dagoen ezkontide ohiak edo izatezko bikotekideak legez bere tutoretzapean edo harrerapean daukan adingabearen izaera frogatzeko. Babesgabetasuna deklaritzen duen ebazpena, Administrazioaren tutoretzapeko adingabeen kasuan.

Seme-alaba adingabeei dagokienez, kontuan hartu behar da guraso-ahalaren titulartasuna guraso eta seme-alaben arteko loturaren legezko ondorioa dela, eta, arau orokor gisa, bi gurasoek batera erabiltzen dutela. Hainbat betebeharrak eta ahalmen biltzen ditu, besteak beste adingabeen ordezkariak. Horregatik, **ez baldin badio ebazpen judizialen batek guraso-ahalaren erabilera mugatzen edo eteten gurasoetako bati, pentsatuko da, betiere, guraso biek batera erabiltzen dutela, edo guraso batek erabiltzen duela, besteak berariaz edo isilbidez hala onartuta**; eta baliozkoak izango dira gurasoetako batek usadio sozialak eta inguruabarren arabera edo premia larriko egoeretan egiten dituen

Mutualismo Administratiboaren Erregelamendu Orokorraren 20.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, eta afiliazio-eskabidearen edukia ikusita beharrezkotzat jotzen denean, jarri diren datuak egiaztatze aldera, agiri gehiago aurkezteko eskatu ahal izango da: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ziurtagiria edo, horrelakorik ezean, errenta mailarena (salbu eta interesdunak baimena ematen duenean bere zerga-datuak Mutualitateak zuzenean kontsultatu ahal izan diezazkion AEATri), lanbide elkargoaren gizarte aurreikuspeneko mutualitateko afiliazioaren ziurtagiria, bizi- eta egoera-agiria, etab.

• DATUEN ALDAKETA

- Datuak aldatu nahi dituen pertsonak Onuradunen Agirian duen "HURRENKERA-ZK." JARRI. Kontuan hartu behar duzu, zenbaki hori 10a baino txikiagoa bada, lehenengo laukitxoan 0 idatzi behar duzula.
- Hori egin eta gero, aurreko datuaren ordezkari jarri behar den DATU BERRIA BAKARRIK idatzi, dagokion zutabearen. Hala ere, DEITURA BAT gaizki baldin badago, BI DEITURAK idatzi behar dituzu berriro.
- DATUEN ALDAKETA, agirian dagoen eta bertan egongo den onuradunaren datuen AKATSAK ZUZENTZEKO bakarrik erabiltzen dela, kontuan hartu behar duzu.

• ONURADUNEN BAJA

- Aipatzen diren datu GUZTIAK idatzi. "Hurrenkera-zk."-ari dagokionez, aurreko atalaren lehenengo lerroan aipatzen dena kontuan hartu behar duzu. Egiaztagiririk ez duzu erantsi behar.
- Aipatzen diren DERRIGORREZKO BETEKIZUNAREN BAT ez badute betetzen, onuradunek beraien izaera GALTZEN DUTE. Beraien eskubidea eragiten duen pertsona, mutualista izaerari utziko zaioenean, gauza bera gertatzen da. Heriotza izanez gero, berriz, alargunek eta umezurtzek eskubidea mantentzeko (horretarako, jo zaitez MUFACE-ra).

• AFILIAZIOA, MUTUALISTA EZ DEN TITULARRA IZANIK (Afiliazioaren pareko dokumentua daukan onuraduna).

- Zure eskubidearen arrazoiari dagokion laukitxoan X bat jarri, jarraian aipatzen diren salbuespenak kontuan hartuz.
- MUTUALISTA EZ DEN TITULARRAK, alarguntasuna edo dibortzioagatik, eskontzaren deuseztasuna edo epailaren banantzeagatik, bere Onuradunen Agirian horretarako eskubidea duten mutualistaren seme-alabak SARTU BEHAR DITU, berarekin batera bizi badira edo bizi izango badira. Eskubidea eragiten duen mutualistaren Agirian bazeuden onuradunen gisa, EZ da beharrezkoa EGIAZTAGIRIRIK ERANSTEA. Beste kasu batzuetan, onuradunen altari buruzko atalean aipatzen diren seme-alabentzako agiriak erantsi.
- Titular ez-mutualista izateko BETEKIZUNAK eskabidean ageri den 2. Adierazpeneko a) eta b) letretan jasotakoak dira. Kasu hauetan honako AGIRI hauek erantsi:
 - a) Heriotza agerian dagoen Familia-Liburua edo Erregistro Zibilak egindako heriotzaren ziurtagiri egiaztatua
 - b) Mutualistaren Onuradun-Agirian dauden alargunak edo umezurtzak izatekotan, hildako mutualistaren Afiliazio-Agiria, errejeta-talondegia eta osasun laguntzarako txartelak. Beste kasu guztietan, behar dituzun agirien berri emango dizu MUFACE-k.

- Alta-eskabidea sinatzeak AITORPENA SINATZEA DAKAR. Horregatik, kontuan hartu behar duzu, gezurrezkoa izango balitz, zeuk duzula erantzukizuna. Gainera, MUFACE-k dagozkion agiriak eska diezazkizuke aitorpena egiazkoa dela egiaztatzeko.

OSO GARRANTZITSUA: Onuradunaren baja eragin dezakeen edozein egoerak MUFACE-ri jakinarazi beharko diozu (hilabete bat igaro baino lehen), bai inprimaki honen bidez, bai postaz bidalitako idazki arrunta dela medio, bestela, aipatutako epetik aurrera jasotako prestazioak, arrazoi justifikaturik ezean, bidegabekotzat joko dira.

Jakinarazten zaizu, halaber, onuradunaren alta berraktibatze eskatu ahal izango duzula, baita zure baja jakinarazi ere, MUFACEren egoitza elektronikoen bitartez. Horretarako NAN elektronikoa edo ziurtagiri elektronikoa behar duzu.